



BALIO PROPOSAMENA

Maskotak zaintzearen truke etxebizitza batean bizitzeko aukera eskaintzen duen bulego dun enpresa bat da. Gure enpresaren izenari dagokionez, Etxekideak.

Arrazoi askorengatik izan daiteke erakargarria guk eskaintzen duguna. Izan ere, bidaiatzea denok gustuko dugun zerbait da, hala ere, badaude hainbat faktore hau ekiditen dutenak.

Alde batetik, **prezioa**. Alegia, gaur egun bidaiatzea geroz eta garestiagoa ari da bihurtzen. Alde batetik, hegazkinei dagokionez prezioak izugarri altuak dira. Kontinente barruan bidaiatzeko hegazkinak dagoeneko badira 100-300 euro. Beraz, imajinatu kontinentetik kanpora joateko kostua. Bilbotik Nueva York-era adibidez, 700 eurogatik duzu joana besterik, etorria agian beste 800 euro izan daitezke. Zoritxarrez arazo honi ez ditugu irtenbiderik eskaintzen. Dena den, badira beste hainbat eragozpen ekiditzeko aukerak bai eskaintzen ditugunak:

Hegazkinaz gain, hotelen prezioak ikaragarriak dira, Nueva Yorken, adibidez garestia izateaz gain gau bakoitzeko 50 dolar ordaindu behar dira tasa bezala, eta hau ezin du edozeinek ordaindu. Beraz, guk eskainitakoarekin behintzat alojamendua dohain izango litzateke. Tokiko garraioari dagokionez ere, demagun etxeko jabeek autoa dutela, kasu horretan hura erabiltzeko aukera ere egongo litzateke eta modu honetara garraio kostuetan aurreztuko zen.

Bestalde, bidaiatzerako orduan **maskotak non lagatzea** sekulako arazoa izaten da batzuentzat. Horregatik, gure enpresak eskaindutakoak ere arazo hau asetuko du. Honen bitartez, zure maskota etxean laga ahal izango duzu ezer ere ordaindu gabe. Gainera, animalia askok nahiago dute beraien confort zone-etik ez ateratzea eta hau bermatzen dugu.

Segurtasunari dagokionez, efikantzia eta konfiantza bermatzen ditugu. Beste hitzetan, maskota zainduko duen pertsona fidagarria dela ziurtatzeko neurriak hartuko ditugu. Lehenik eta behin elkarrizketa bat egingo zaio eta ondoren etxea lagatzen duenarekin harremanetan egoteko aukera ziurtatuko da. Gainera, hauetako pertsona bakoitza baloratzeko aukera izango da. Bestela esanda, esperientzia bakoitza eta gero etxean maskota zaintzen egon den pertsonari 0-tik 10-era puntuazio bat emateko aukera egongo da, segidan arrazoitzeko tartea egonez. Honek oraindik eta gehiago zihurtatuko du etxean izango duzuen pertsonak fidagarriak direla eta hau gutxi balitz, hauekin tratu zuzena izango duzue.



Beste aldetik, beste enpresengatik bereizten gaituzten ezaugarriak hurrengoak dira:

Hasteko bezeroekiko harreman zuzena eta gertutasuna. Hau da, badira enpresa batzuk online lan egiten dutenak eta informazioa eman eta tramitea eramaten baino ez dutenak egiten. Gu berriz, bezeroekin harreman estuak izaten ditugu dela telefono deiez, bideo deiez, ala presentzialki. Zerbitzu hau zalantzak eta bestelakoak argitzeko balioko du. Hau da, plataforma global bat izan ordez EH inguruan dugu oinarria eta hortaz gure bulegora bertaratu daiteke edonor.

Bigarrenik, prezioa izango litzateke. Guk eskainitako prezioa 800 eurokoa da etxea uzten dutenentzako. Beste agentziek berriz 1000 euro eskatzen dute. Diru hau tramite osoa egitearen kostua izango litzateke. Hau gutxi balitz, prezio honek etxearen segurua estaltzen du. Maskota zaintzera doanak berriz ez du preziorik ordaindu beharko.

Bi ezaugarri hauekin, Etxekideak, bidaiatzearen merkatuan guztiontzat merkeagoa den aukera bat proposatu nahi du.

Bukatzeko, agentzia online bat garenez, app bat dugu informazioa guztiontzat eskuragai egon dadin eta gurekin harremanetan jarri ahal izateko. Interesatuta egon ezkerro, zenbait datu bete beharko dira eta hauek guri bidaia, ondoren gurekin harreman zuzenetan jarri eta tramitea hasiko litzateke.